

Asier: Biztanleri arloan nola ikusten duzu zumaia 2050. urtean, hau da, zenbat biztanle edukiko ditu zure ustez?

Maite: Nik uste, gutxigora-behera 11.000 biztanle orain baña zeozer gehiago baina antzeko.

Asier: Ongi da. Jatorriari dagokionez nolakoa izango da herria zure ustez?

Maite: Nik uste ez dela egongo aldaketa askorik, bertako jende asko, eta kanpoko batzuk bai baina gehiegi erez.

Asier: Orain ekonomiari buruz hitz egingo dugu, zure ustez zertan egingo dute lan Zumaiarrek?

Maite: Nik uste agian turismo arloan orain baino gehiago bai baña gehiengoak industrian bertako industrian.

Asier: Orain jasagarritasunari buruz galdetuko dizut. 2050. urtean nolakoa izango da herriko energia kontsumoa?

Maite: Nik uste, nahiko nuke gehiengoak energia berriztagarriak erabiltzea

Asier: Eta zumaiarrek nola mugituko dira herrian bertan?

Maite: espero dut kotxe gutxiago egotea, eta agian bizikletan edo ibiltzea.

Asier: Bale ongi da. Eta 2050. urtean Zumaian klima aldaketaren ondorioak jasango alditugu?

Maite: Bai, dudarik gabe, nik uste ibai inguruak urez beteko direla, euri gehiago egingo duela, lehorte handiagoak...

Asier: Eta amaitzeko, 2050. urtean, gaur egun baino obeto edo okerrago biziko gara?

Maite: Obeto ba ez dakit, Zumaian ondo bizi gara ezta?

Asier: Bai, gu behintzat bai. Eskerrikasko hau izan da entrebista, amen amaitzen da.

Maite: Ongi da, eskerrikasko

